


ZINE-EMANALDIA HASI DADILA!
¡QUE COMIENZE LA FUNCIÓN!



Galdera gida 2026



auditoria soziala
REAS EUSKADI



Dokumentu honetan, galderaz-galdera, REAS Euskadiko Auditoria Sozialaren galdera-multzoa birpasatzen da. Bertan, galdera bakoitzaren esanahia eta eskatzen dena aurkituko duzue.

Hori dela eta, galdetegia www.bihotzaerakutsi.org webgunean bete baino lehen, garrantzitsua da galdera guztiak hemen begiratzea, erakundeko kideen artean zereginak banatu ahal izateko eta hortaz, galdetegiaren betetzea errazteko. Hurrengo taulan galdera-multzoaren egitura eta galdera kopurua aurkezten dira.

	GALDERA KOP.
DATU OROKORRAK	
Erakundeko kideak (forma juridikoaren arabera baldintzatua)	9
Lantokiak	1
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1
EKONOMIA ETA ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA	
Langileen batez bestekoa	1
Soldatak eta ordainsariak	4
Informazio ekonomikoa	2
Diru-sarrerak	2
Gastuak	2
Irabazi politika	4
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1
EKITATEA ETA DEMOKRAZIA	
Partaidetza	4
Gardentasuna	5
Aniztasuna	6
Ezgaitasuna	2
Erantzukizun karguak	3
Soldata-berdintasuna	2
Berdintasuna	4
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1
JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA	
Ingurumen-politika eta -irizpide orokorrak	3
Kontsumoa	4
Kontsumoa lantokian	4
Hondakinen prebentzioa, tratamendua eta bilketa	1
Mugikortasuna	3
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1
LANKIDETZA ETA INGURUAREKIKO KONPROMISOA	
Sare eta gizarte mugimenduetan partaidetza	2
Merkatu soziala	4
Finantza etikoak	2
Hizkuntza-politika	1
Prokomunerako kontribuzioa	2
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1



LAN DUINA	
Lan osasuna	1
Lan-egonkortasuna	2
Lan prestazioen arauketa	3
Prestakuntza	2
Zaintzak eta konpentsazioak	3
Informazio garrantzitsua (hautazkoa)	1
KOPURUA, GUZTIRA	94

Informazio praktikoa Auditoria Soziala erantzun aurretik:

- Gida honetako galdera guztiak ez dira automatikoki agertuko galdetegia erantzuten hastean.
- Galdera batzuk erakundeak sartzen dituen erantzunen arabera baino ez dira agertzen. Adibidez, Lan Duinaren atalekoak erakundeak datu orokorretako langileen galderak betetzen baditu bakarrik agertzen dira.
- Beste galdera batzuk erakundearen forma juridikoaren arabera dira. Adibidez, patronatu kideen kopurua bakarrik galdetzen da erakundea fundazio bat bada.
- Beraz, OSO GARRANTZITSUA da galdesorta Datu Orokorren ataletik hasita erantzutea.
- Auditoria ez da une bakar batean erantzun behar. Beste edozein unetan gorde eta erantzuten jarrai daiteke. Erantzunen progresua zein den jakin daiteke, baita zenbat geratzen den erantzuteke, mostradore nagusian begiratu.
- Komeni da gordetzea, daturik ez galtzeko. Interneteko nabigatzaileko saioek iraupen mugatua dute, eta denbora batez geldirik egon ondoren, gorde gabeko datuak gal daitezke.
- Auditoria bat BIDALI aukera erabiltzen denean bakarrik amaitzen da (eta une horretatik aurrera ezin dira datuak aldatu). Datuen bat betetzeke badago, une horretan abisu bat agertuko da falta diren edo zuzenak ez diren datuak zein diren adieraziz.



DATU OROKORRAK

q0101	Erakundeko kideak ¹	Langileak ez diren bazkideen kopurua (edozein motatako bazkideak izan daitezke)	Adierazi soldatapekoak EZ diren erakundeko bazkide kopurua (adibidez, kontsumo, zerbitzu, ustiapen bazkideak edo profesionalak lan, kontsumo, zerbitzu eta bigarren mailako kooperatiben kasuan, elkartekideak elkarteen kasuan, edo bazkide laguntzaileak, erakundearen jardueraren izaeraren arabera).
q0102	Erakundeko kideak	Bazkide/Patrono diren erakundeen kopurua	Adierazi bazkide diren enpresa edo erakunde sozial kopurua.
q0103	Erakundeko kideak	Bazkide/Patrono diren erakundeen ordezkari parte hartzen duten pertsonak	Adierazi eremu erabakitzailetan eta exekutiboetan aktiboki parte hartzen duten erakunde bazkideen ordezkari kopurua. Garrantzitsua da kopuru hau edukitzea erakundearen aktiboki zenbat pertsonak parte hartzen duten jakiteko, eta horrela, kopuru horrek behar dituen adierazleak kalkulatu ahal izateko.
q0104	Erakundeko kideak	Patrono kopurua	Soilik fundazioentzat. Adierazi fundazioaren patronatua osatzen duten pertsona kopurua.
q0105	Erakundeko kideak	Bazkide diren langileen kopurua	Adierazi era berean erakundeko bazkide diren langile kopurua
q0106	Erakundeko kideak	Bazkide ez diren pertsonen kopurua	Adierazi bazkide ez diren soldatapeko pertsona kopurua.
q0110	Erakundeko kideak	Plantillan ez dauden langileen kopurua	Adierazi zenbat langilek EZ duten lan kontraturik eta proiektuari lotuta dauden, generoaren arabera bereizita. Adibidez, hilero edo hiruhileko

¹ Erakundeko kideei buruz dauden 9 galderetan, pertsona bat eremu bakar batean zenbatu daiteke, inoiz ez bikoiztuta.



			bakoitzean faktura bat edo minutak aurkezten dituzten langileak eta praktiketako pertsonak.
q0107	Erakundeko kideak	Boluntario kopurua	Duten jardueraren izaeraren ondorioz normalean boluntarioak dituzten erakunde guztientzat. Adierazi erakundeko egituran borondatez parte hartzen duten pertsona kopurua.
q0112	Erakundeko kideak	Pertsona komunero kopurua	Herri-mendiak izaera juridikoa dutenek soilik beteko dute.
q0201	Lantokiak	Erakundearen lantoki kopurua	Adierazi erakundeak zenbat lantoki dituen (bulegoak, lantegiak, fabrikak, etab.). Galdetegi osoan emandako datuek lantoki guztietako informazio erantsiari buruzkoak izan behar dute, non eta ez den kontrakoa adierazten atal honetan bertan eskuragarri dagoen informazio kualitatiboaren kutxatilan. Lantokiez ari garenean, lan kolektiboko espazioez ere ari gara.
q0202	Informazio garrantzitsua	Datu orokorrak (hautazkoa)	ESSren parte diren erakundeen errealitate eta praktiken aniztasunaz jabetzen gara. Kontuan izanda galdetegi hau garrantzitsua dela zuek barnean erakunde gisa pentsatzeko eta atzerrian zeuen buruak esaten lagunduko dizula. Erosoa edo beharrezkoa ikusten al duzu zure errealitateari buruzko informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan kontenplätzen/islatzen ez den "Datu Orokor" atal honi buruz?



EKONOMIA ETA ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA

q1101	Langileen batez bestekoa	Alta-egoeran dauden langileen kopurua, lanaldi osoetan adierazita (2025ean zehar)	<p>Eragiketa hau entitatearekin urtean zehar lan kontratua izan duten pertsona guztiekin egiten da, eta, ondoren, batukaria egiten da. Aldi baterako ezintasunagatik (ABE) edo lan istripuagatik (LI) bajaran dauden pertsonak badaude, horiek eta, hala badagokio, baja estaltzen duen pertsona zenbatu beharko dituzue. Soldata jasotzen duten bazkide kooperatibista langileak eta RETAko bazkideak ere kontabilizatzen dira (autonomoak). Ez dira sartzen enplegu- eta prestakuntza-programetan aktiboak diren pertsonak.</p> <p>Kalkulua egiteko, kontuan hartu behar dira altako egunak eta lanaldiaren % lanaldi partzialeko pertsonen kasuan (langilearen altako egunak urteko egunen artean banatzen dira, eta lanaldiaren portzentaigatik biderkatzen da).</p> <p>Adibidez, erakunde batek:</p> <p>emakume bat altan, urte osoan lanaldi osoan: $(365/365) * \% 100 = 1,00$; gizon bat altan, urte osoan lanaldi osoan: $(365/365) * \% 100 = 1,00$; emakume bat altan, urte osoan lanaldi erdian: $(365/365) * \% 50 = 0,50$; emakume bat altan 2 hilabetez, lanaldi erdian: $(60/365) * \% 50 = 0,08$; Emitza 1,58 emakume eta 1,00 gizon izango litzateke.</p>
q1216	Soldata eta ordainsariak	Adierazi Gizarte Segurantzaren erregimena (lan kooperatibentzat soilik)	Lan elkartuko kooperatibetan, langileen bi afiliazio mota existitzen dira: 1) Araubide Orokorra edo jardueraren ondorioz egokitu dakiekeen Araubide Berezia edo 2) Langile Autonomoen Araubide Berezia
q1102	Soldata eta ordainsariak	Langile guztien urteko soldata gordinaren batukaria	Erakundeko langile guztien azken ekitaldiko urteko soldata gordinen batukaria (generoaren arabera berezita). Datu hori Kontabilitate Plan



			Orokorren 640 kodearekin aurki daiteke Emaitzen Kontuan, baina baztertu egin behar dira pertsonak beren lana egiteko aurreratu dituzten aurrerakinak (hala nola dietak eta kilometrajeak) eta kalte-ordainak.
			Lauki hau markatu beharko duzu, baldin eta:
q1108	Soldatak eta ordainsariak	Gizarte Segurantzaz baja edo baimena duten langileak izan dituzue 2025ean?	<ol style="list-style-type: none">1. Haurdun geratzeko arriskuagatik edo amatasun, aitatasun, adopzio edo harreragatik baimenagatik bajaran dauden langileak izan dituzue.2. Gaixotasunagatik edo lan istripuagatik baja bat izan duten bazkide langileak dituzue RETAn;3. Erregimen Orokorrean zein RETAn aldi baterako ezintasunagatik edo Llagatik baja hartuz gero, ordainsariak ez badira % 100ean osatzen.
			Erakundeak langileei sortu ez dizkien ordainsari guztiak batzea (generoaren arabera bereizita):
q1107	Soldatak eta ordainsariak	Baja edo baimenengatik erakundeak ordaindu ez dituen ordainsarien batukaria	<ol style="list-style-type: none">1. Haurdunaldi-arriskuagatik, jaiotzagatik eta erditze edo adopzioagatik adingabea zaintzeagatik, edo adopzio edo harrera helburuko zaintzagatik (normalean, amatasun, aitatasun eta adopzioagatik baja eta/edo baimen gisa ezagutzen duguna). Ordainsari horiek zuzenean ordaintzen dizkio Gizarte Segurantzak langileari, oro har, kotizazio-oinarriaren % 100 ordainduta.2. RETAn sartuta dauden erakunde bazkideen kasuan (autonomoak), aurrekoez gain, ABE (gaixotasuna) edo LI (lan istripua) dela-eta beren mutualitatetik edo GSINetik zuzenean jasotzen duten zuzeneko ordainketa jaso beharko dute.3. Erregimen Orokorrean zein RETAn aldi baterako ezintasunagatik edo lan istripuagatik baja hartuz gero, ordainsariak ez badira %



			100ean osatzen, hemen ere gehitu beharko dituzue ordaindu gabeko zenbatekoak.
q1203	Informazio ekonomikoa	Diru-sarreraren urteko zenbatekoa guztira -€-tan-	Adierazi eurotan erakundeak azken ekitaldi ekonomikoan guztira izan dituen diru-sarreraren zenbatekoa. Erakundearen diru-sarrerak ondasunen edo zerbitzuen salmentetatik, diru-laguntzetatik, dohaintzetatik, bazkideen kuotetatik, etab. etor daitezke. Horien guztien batuketa da lauki honetan adierazi behar dena. Azken ekitaldi ekonomikoaren diru-sarreraren guztizkoa Eraitzen Kontuan aurki daiteke, Kontabilitate Plan Orokorraren 7. kodean, "Salmentak eta Diru-sarrerak" 7. taldeko partida guztien batuketa baita. Informazio hau erakundeko kontabilitateaz eta/edo fiskalitateaz arduratzen den pertsonak edo sailak erraz eskuratzeko modukoa izan beharko litzateke, dagokion ekitaldiaren dokumentu kontableen edo fiskalen bidez.
q1201	Informazio ekonomikoa	Gastuen urteko zenbatekoa guztira -€-tan-	Adierazi eurotan azken ekitaldian erakundeak izan dituen gastuen zenbatekoa. Azken ekitaldi ekonomikoaren gastuen guztizkoa Eraitzen Kontuan aurki daiteke, Kontabilitate Plan Orokorraren 6. kodean, "Erosketak eta Gastuak" 6. taldeko partida guztien batuketa baita (beraz, barne hartzen ditu soldatak eta lansariak, alokairuak, ondasunen eta zerbitzuen erosketak, etab.). Informazio hau erakundeko kontabilitateaz eta/edo fiskalitateaz arduratzen den pertsonak edo sailak erraz eskuratzeko modukoa izan beharko litzateke, dagokion ekitaldiaren dokumentu kontableen edo fiskalen bidez.
q1204	Diru-sarreraren xehetasuna	Ondasunen eta zerbitzuen salmenten urteko zenbatekoa guztira -€-tan-	Salmentengatik edo zerbitzu-emateengatik jasotako diru-sarrerak dira (KKP, funtsean, Kontabilitate Plan Orokorraren 70. kontuari lotutako partiden baliokideak dira). Administrazio publikoei emandako prestazioaren ondorioz sortutako diru-sarrerak ere sartuko dira, baldin



			<p>eta faktura badago. Oharra: kontabilitate formalik ez duten erakundeak estimazio bat egitea gomendatzen da.</p> <p>Baliozkotzea: $(0 \leq X \leq q1203) \ \&\& \ ((X + q1205 + q1211 + q1212) \leq q1203)$</p>
q1205	Diru-sarreraren xehetasuna	Erakundeari emandako diru-laguntzen zenbatekoa guztira -€-tan-	<p>Galdu-irabazien kontuan 740 kontuetan agertzen diren zenbatekoen batura da. Ez dira sartuko faktura duten administrazio publikoen zerbitzuak emateagatik sortutako diru-sarrerak. Ebaluatzen ari garen ekitaldian emandako eta egotzitako diru-laguntza guztiak kontabilizatuko dira, ekitaldi honetan kobratu diren ala ez alde batera utzita</p> <p>Baliozkotzea: $(0 \leq X \leq q1203) \ \&\& \ ((q1204 + X + q1211 + q1212) \leq q1203)$</p>
q1206	Gastuen xehetasuna	Langileen kostuaren zenbatekoa -€-tan-	<p>Urteko soldata gordina, hurrengo kontu kontableak batuz kalkulatzen da: 640 Soldatak eta 642 enpresaren kargura doan SS. Erakundearekin lan-lotura bat duten pertsonen fakturak ere barneratu beharko liriateke, euren ordainketa aurrerakin edo faktura bidezko autonomoen erregimenean dutelarik.</p> <p>Gogoratu langileen gastuen galderak (q1206) soldata gordinak (q1102) ez ezik, Gizarte Segurantzako gastuak eta abar ere biltzen dituela (Kontabilitate Plan Orokorreko 64. kontuan dena).</p> <p>Pertsona fisikoen edo autonomoen forma juridikoa duten erakundeen kasuan, hauxe izango litzateke baliokidea: adierazi lanaren etekin garbien batukaria (Errenta Aitorpenaren 0003 laukia) eta Gizarte Segurantzari autonomo gisa ordaintzen zaizkion hileko kuoten batukaria (edo Errenta Aitorpenaren 013 laukia).</p> <p>Baliozkotzea: $(0 \leq X < q1201) \ \&\& \ ((q1202 + X) \leq q1201)$</p>



q1202	Gastuen xehetasuna	Ondasunen eta zerbitzuen erosketen zenbatekoa guztira -€-tan-	Adierazi eurotan erakundeko hornitzaile desberdinei erositako ondasunen eta zerbitzuen zenbatekoa. Ondasunen eta zerbitzuen erosketa gisa ulertzen da salgaien erosketa moduan (bulegoko materiala, hornikuntza industrialak, ekipo informatikoak, etab.) eta zerbitzuen kontratazio moduan (hornidurak, komunikazio zerbitzuak, zerbitzu informatikoak, etab.) egindako erosketa multzoa. Kontabilitate Plan Orokorraren 60 eta 62 kontuekin lotutako partida orokorrak dira batez ere. Informazio hau erakundeko kontabilitateaz eta/edo fiskalitateaz arduratzen den pertsonak edo sailak erraz eskuratzeko modukoa izan beharko litzateke, dagokion ekitaldiaren dokumentu kontableen edo fiskalen bidez. Aurreko atalean adierazitako kopurua baino kopuru txikiagoa izan behar du, guztizko gastuena. Baliozkotzea: $(0 \leq X < q1201) \&\& ((X + q1206) \leq q1201)$
q1405b	Irabazi politika	Enpresei edo bazkideei banatutako soberakin ekonomikoen kopurua	
q1406b	Irabazi politika	Galerak konpentsatzeko erabilitako soberakin ekonomikoen kopurua	
q1413b	Irabazi politika	Erreserbetara bideratutako soberakin ekonomikoen kopurua	Zehaztu erreserbetara bideratzen den zenbatekoa. Erakunde batzuek, beren estatutuen eta/edo forma juridikoaren arabera, kontuan hartu behar dute horiek banatzeko berariazko mugarik edo jarraibiderik dagoen.
q1414	Irabazi politika	Aukeratu borondatezko erreserben xede diren kontzeptuak	Legezko betebeharretatik haratago egiten direnak borondatezko erreserba gisa ulertzen ditugu. Adibidez, kooperatibetan, Heziketako, Prestakuntzako eta Sustapeneko Fondoaren (FEFP) kenkarien ondoren. Barneko prestakuntza eta garapen profesionalean, honako jarduera hauek hartzen ditugu kontuan: foroetara, tailerretara, biltzarretara, topaketetara eta abarretara joatea. (hautaketa anizkoitza):



			<ul style="list-style-type: none">▪ Borondatezko erreserbak▪ Barne prestakuntza eta garapen profesionala▪ Kausa sozial eta solidarioak▪ Ekonomia sozial eta solidarioaren finantza-inbertsioak
q1412	Informazio garrantzitsua	Ekonomia eta aberastasunaren bidezko banaketa (hautazkoa)	Badakigu ESS osatzen duzuen erakundeen errealitateak eta praktikak askotarikoak direla. Kontuan izanik galdetegi hau garrantzitsua dela erakunde gisa pentsatzeko eta kanpora begira kontatzeko, ikusten duzue komenigarria edo beharrezkoa dela zuen errealitateari buruzko informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan jaso/islatu ez den "Ekonomia eta aberastasunaren bidezko banaketa" atal honi dagokionez?

EKITATEA ETA DEMOKRAZIA

q2112	Partaidetza	Entitateko zenbat pertsonak hartu dute parte erabaki estrategikoetan?	Adierazi, zenbaki osoak erabiliz eta generoa bereiziz, aurreko ekitaldiko erabaki estrategikoetan parte hartu duten erakundeko pertsonen guztizko kopurua. Epe ertainera eta luzera begira hartzen diren erabakiei esaten diegu erabaki estrategiko. Informazio hori aktak irakurrita lor daiteke, hau da, kudeaketa-planak, erabaki estrategikoak, urteko aurrekontuak eta abar onartu diren bileretako aktetan begiratuta. Baliozkotzea: $0 \leq X \leq q0101 + q0103 + q0104 + q0105 + q0106 + q0107$
-------	-------------	---	---



q2113	Partaidetza	Entitateko zenbat pertsonak hartu dute parte antolamendu-erabakietan?	<p>Adierazi, zenbaki osoak erabiliz eta generoa bereiziz, aurreko ekitaldiko antolamendu-erabakietan parte hartu duten erakundeko pertsonen (bazkide diren eta ez diren langileen eta boluntarioen) guztizko kopurua. Eguneko lana egiteko lan-taldeetan eta batzordeetan hartzen diren erabakiei esaten diegu antolamendu-erabaki. Informazio hori aktak irakurrita lor daiteke, hau da, lan- eta antolaketa-planak onartu diren bileretako aktetan begiratuta.</p> <p>Baliozkotzea: $X \leq q0105 + q0106 + q0107$</p>
q2114	Partaidetza	Zenbat langilek hartu dute parte erabaki estrategikoetan?	<p>Adierazi, zenbaki osoak erabiliz eta generoa bereiziz, aurreko ekitaldiko erabaki estrategikoetan parte hartu duten erakundeko langileen (bazkide direnen eta ez direnen) guztizko kopurua. Epe ertainera eta luzera begira hartzen diren erabakiei esaten diegu erabaki estrategiko. Informazio hori aktak irakurrita lor daiteke, hau da, kudeaketa-planak, erabaki estrategikoak, urteko aurrekontuak eta abar onartu diren bileretako aktetan begiratuta.</p> <p>Baliozkotzea: $X \leq q0105 + q0106$</p>
q2115	Partaidetza	Zenbat langilek hartu dute parte antolamendu-erabakietan?	<p>Adierazi, zenbaki osoak erabiliz eta generoa bereiziz, aurreko ekitaldiko antolamendu-erabakietan parte hartu duten erakundeko langileen (bazkide direnen eta ez direnen) guztizko kopurua. Eguneko lana egiteko lan-taldeetan eta batzordeetan hartzen diren erabakiei esaten diegu antolamendu-erabaki. Informazio hori aktak irakurrita lor daiteke, hau da, lan- eta antolaketa-planak onartu diren bileretako aktetan begiratuta.</p> <p>Baliozkotzea: $X \leq q0105 + q0106$</p>



q2202	Gardentasuna	Soldatak eta gainerako ordainsariak publikoak al dira langileentzat/bazkideentzat?	<p>Adierazi, erakunde barruan, soldatak eta beste ordainsari batzuk publikoak diren ala ez. Publikoak diren jakiteko, noizean behin edo aldizka komunikazio-sistema bat egon behar da erakundeko kide guztiakin, non edozein kidek informazio hori eskura dezakeen (intranet, web orriko bezeroentzako atala, barruko helbide elektronikoa, etab.). Galdera honi baiezkoa erantzunez gero, baiezkoaren baliotasuna egiaztatu ahal izango da aurreko zerrendako tresnetako batekin.</p> <p>Bai / Ez</p>
q2203	Gardentasuna	Publikatu al dituzu zure web orrian azken ekitaldiko auditoria sozialaren datuak?	<p>Erakundeak auditoriaren emaitzak argitaratu dituen galdetzen da, bereziki erakundearen webgunean eskegi diren.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Kanpo zein barne-zabalpena egin dugu▪ Erakundeko pertsonen artean zabaldu dugu▪ Ez dugu zabaldu▪ Ez dugu zabaldu auditoria soziala egiten dugun lehen urtea delako
q2207	Gardentasuna	Zer informazio dute eskuragarri langileek, bazkideek eta/edo boluntarioek?	<p>Barrura begira partekatzen den eta langile —maila edo inplikazioa gorabehera—, bazkide eta/edo boluntario guztientzat eskuragarri dagoen informazioari buruz ari da. Aukerak (hautaketa anizkoitza):</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Balantze ekonomikoa / aurrekontua▪ Komunikazio-plana▪ Urteko lan-plana / txostena▪ Arauak eta barneko prozedurak▪ Kode etikoa / estatutuak▪ Batzarretako aktak



			<ul style="list-style-type: none">▪ Batzarra ez beste erabakiguneetako aktak.▪ Horietako bat ere ez
q2208	Gardentasuna	Batzarretatik edo urteko ebaluazioetatik kanpo, baduzue informazio ekonomikoa partekatzeko gunerik?	<p>Urteko batzarrak edo ebaluazioak ez diren informazio ekonomikoa partekatzeko erabiltzen diren espazio edo tresnei egiten die erreferentzia. (hautaketa anizkoitza):</p> <p>Honela ulertzen dugu:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Horrelakorik ez daukagu▪ Informazioa eskariaren arabera partekatzen dugu▪ Komunikazio-kanalak: posta elektronikoak, whatsapp-telegram taldeak, iragarki-taulak, buletinak, gardentasun-ataria, etab.▪ Karpeta partekatuak: drive, intranet...▪ Bilerak, asterokoak, hilerokoak edo hiruhilerokoak, asanbladak ez direnak.
q2210	Gardentasuna	Zuen web-orrialdean, zer informazio dago argitaratuta jende guztiak eskuratzeko moduan?	<p>Aukerak (hautaketa anizkoitza):</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Balantze ekonomikoa/aurrekontua▪ Komunikazio-plana▪ Lan-plana/memoria▪ Kode etikoa/estatutuak▪ Aurrekoetatik bat ere ez
q3109	Aniztasuna	Langileen batez besteko adina (generoaren arabera bereizita)	Generoaren arabera bereizitako batez besteko adina lortzeko, genero bereko langile guztien adina batu behar da, eta emaitza hori genero bereko langileen kopuruarekin zatitu.



			Enplegu- eta prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak sartzen dira.
q3101	Aniztasuna	Gizarte-bazterketako arrisku-egoeretatik datozen langileen kopurua (arrazoi ekonomiko eta/edo sozialengatik)	Gizarte-bazterkeriako egoeretatik datozen pertsonatzat hartzen ditugu: (i) desgaitasun psikikoa duten pertsonak; (ii) indarkeria matxista jasan duten emakumeak; (iii) migratutako pertsonak; (iv) berrogeita bost urtetik gorako iraupen luzeko langabeak; (v) tutoretzapean egon diren gazte ohiak; (vi) drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonak; (vii) espetxeetako barneko pertsonak, haien egoerak enplegu batera sartzea ahalbidetzen badie, baldintzapeko askatasunean dauden pertsonak eta preso ohiak.
q3102	Aniztasuna	Europar Batasunetik kanpokoak diren langileen kopurua	Europar Batasunetik kanpoko pertsonak dira Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatearik ez dutenak.
q3103	Aniztasuna	Arrazializatuak diren langileen kopurua	“Arrazializatutako” pertsonen hitz egiten dugunean, ezaugarri kultural, fisiko eta abarregatik gutxietsizat eta gutxiengotzat jotzen den talde batean sailkatzen diren pertsonak aipatzen ditugu, eta horregatik diskriminazioa jasaten dutenak (modu informalean esanda, “zuriak” ez direnak).
q3111	Aniztasuna	Egin da erakunde barruan aniztasuna sustatzeko ekintza positiborik?	Erakundearen barruan aniztasuna sustatzeko ekintza positibotzat jotzen ditugu pertsona guztien partaidetza, irisgarritasuna eta bizikidetzat ahalbidetzen dituztenak, bai barne-funtzionamenduan eta bai kanpo-harremanetan eta erakundearen komunikazioan ere. Ekintza horiek diskriminazioak saihestuko dituzte, honako hauek ardatz dituzten bereizkeriak, hain zuzen: gizarte-klasea, desgaitasuna, adina/bizi-zikloa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, jatorria/migrazioa, arrazializazioa, erlijioa/sinesmenak. Galdera honetan ez dugu gizonen eta



emakumeen arteko berdintasunaz galdetzen, emakume izatea ez baita aniztasuna.

Aukerak (hautaketa anizkoitza):

- Barneko prestakuntza.
- Aniztasunari buruz hausnarketa egiteko guneak erakunde barruan.
- Aniztasunen lan-batzordea, antzemandako beharren arabera egokitzapenerako neurriak ezartzen duena.
- Erakunde barruan aniztasunari buruz egindako hausnarketak plangintzan/helburuetan txertatzea.
- Taldeetan askotariko profilak (jatorrian, adinean eta abar) dituzten pertsonak sartzea lehenesten da.
- Langileak «curriculum itsua» kontuan hartuta hautatzea.
- Ez da ekintza positiborik egin erakundearen barruan aniztasuna sustatzeko.

q3113

Aniztasuna

Egin da erakundetik kanpo aniztasuna sustatzeko ekintza positiborik?

Erakundetik kanpo aniztasuna sustatzeko ekintza positibotzat jotzen ditugu pertsona guztien partaidetza, irisgarritasuna eta bizikidetzaren ahalbidetzen dituztenak, bai kanpo-harremanetan eta bai entitatearen komunikazioan ere. Ekintza horiek diskriminazioak saihestuko dituzte, honako hauek ardatz dituzten bereizkeriak, hain zuzen: gizarte-klasea, desgaitasuna, adina/bizi-zikloa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, jatorria/migrazioa, arrazializazioa, erlijioa/sinesmenak. Galdera honetan ez dugu gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaz galdetzen, emakume izatea ez baita aniztasuna.

Aukerak (hautaketa anizkoitza):



			<ul style="list-style-type: none">▪ Talde jakinentzako produktuak eta zerbitzuak sortzea.▪ Aniztasuna ageriko egiten duten komunikazio-estrategiak.▪ Aniztasuna sustatzeko kanpo-ekintzak: lantegiak, hitzaldiak, ikastaroak eta abar.▪ Beste erakunde batzuekiko aliantzak.▪ Ingurunea aztertzea, gure erakundearen inguruan dagoen aniztasunaren egoera ezagutzeko.▪ Ez da ekintza positiborik egiten erakundetik kanpo aniztasuna sustatzeko.
q3108	Ezgaitasuna	Ezgaitasuna duten langile kopurua	<p>Desgaitasunen bat duten langileen kopuruari buruzko galdera da. Erakundeak onartutako desgaitasunak izan behar dira, eta ez dira nahitaez Gizarte Segurantzari onartuta egon behar; % 33tik beherako desgaitasunak ere izan daitezke. Barne hartzen ditu enplegu- eta prestakuntza-programetan aktibo dauden pertsonak. Mota guztietako desgaitasunez ari gara: desgaitasun fisikoa, funtzionala eta/edo organikoa; zentzumen-, ikusmen-, mintzamen- eta entzumen-desgaitasuna; adimen-desgaitasuna, eta buru-desgaitasuna.</p>
q5104	Ezgaitasuna	Hartzen da kontuan desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta/edo ahalbidetzen da pertsona guztien irisgarritasuna?	<p>Desgaitasun-mota asko dago (desgaitasun fisikoa, funtzionala eta/edo organikoa; zentzumen-, ikusmen-, mintzamen- eta entzumen-desgaitasuna; adimen-desgaitasuna, buru-desgaitasuna), eta inguruneak egokitzeko moduak ere askotarikoak dira (mugikortasun urria, interpretea, azpitoluak, hizkuntza erraza, seinaleak eta abar). Jarraian, adibide gisa, desgaitasuna kontuan hartzen duten eta pertsona guztien inklusioa sustatzen duten erakundearen jardunbide zehatzak azalduko ditugu:</p>



GUNEA IRISGARRI egiteko jardunbideak: adibidez, sarrera nagusia maila bakar batean dago, gurpil-aulkian leku guztietara iritsi daiteke eta edonon egon daiteke, komuna egokituta dago, altzarien neurriak eta kokapena egokiak dira eta edozeinek erabil ditzake, ateetako tinbreak soinudunak eta argidunak dira, abisu-seinaleak egokitu egin dituzte eta abar.

PRESTAKUNTZA-JARDUERAK, EKITALDIAK edo LANTEGIAK egiteko jardunbideak: adibidez, LSE* interpreteak daude, testuak ikusmen urria duten pertsonentzako irisgarria den formatu digitalean daude, Braille hizkuntzan idatzitako testuak daude, erraz heltzeko materialak daude, kontrastedunak eta abar.

LANGILEEK prestakuntza eta/edo baliabideak dituzte desgaitasunei arreta eskainiz bezeroekin/erakunde hornitzaileekin lan egiteko: baten batek LSE* daki, behar izanez gero komunikazioa errazteko materiala erabilgarri dute eta abar.

WEB-ORRIALDEA eta/edo sortzen den IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA: adibidez, web-irisgarritasunean adituak diren kontsultoreak daude; orria egokitu dute ahalik eta jenderik gehienak aukera izan dezan bertan nabigatzeko: itsuek, ikusmen-urritasuna dutenek, irakurri eta idazteko zailtasunak dituztenek; eta/edo ikus-entzunezko materialak LSE* interpreteak ditu, edo zeinu-bidezko bertsioa...

(*LSE: Espainiako zeinu-hizkuntza)

Aukerak (hautaketa anizkoitza):

- Bai, gunea egokituta dago desgaitasun-mota guztiak kontuan hartuta.



			<ul style="list-style-type: none">▪ Bai, prestakuntza-saioetan eta/edo lantegietan irisgarritasun-neurrien berri ematen dugu, neurriren bat falta den galdetzen dugu eta horiek eskaintzen saiatzen gara.▪ Bai, langileek prestakuntza eta/edo baliabideak dituzte desgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko.▪ Bai, irisgarritasuna kontuan hartzen da web-orrialdea egitean eta/edo ikus-entzunezko materiala sortzean.▪ Bai, beste neurri batzuk hartzen dira.▪ Ez, ez da neurri berezirik hartzen desgaitasuna kontuan hartuta.
q3201	Erantzukizun karguak	Erantzukizuneko karguak betetzen dituzten langileen kopurua	<p>Adierazi, zenbaki osotan eta generoaren arabera banatuta, erakundeko lan egituraren erantzukizuneko karguak betetzen dituzten pertsona kopurua, erantzukizuneko kargu bezala ulertzen direlarik erdi-mailako zuzendaritza eta aginte karguak, kargu politikoa/sozietarioa gorabehera. Datu hau lortzeko, barne organigrama zehazten duten dokumentuetara jo daiteke, bereziki, onartu den azken barne lan-egitura jasotzen duten bileretako aktetara.</p> <p>Antolaketa erabat horizontala bada, 0 erantzukizun-kargu jartzea gomendatzen dugu, hori islatzeko.</p>
q3202	Erantzukizun karguak	Erakundean kargu sozietarioak/politikoak betetzen dituzten pertsonen kopurua	<p>Adierazi, zenbaki osotan eta generoaren arabera banatuta, erakundean kargu sozietarioak/politikoak betetzen dituzten pertsona kopurua. Zuen forma juridikoaren arabera, zuzendaritza batzordeko (elkarteak eta federazioak), kontseilu nagusiko (kooperatibak), patronatuko (fundazioak) edo zuzendaritza kontseiluko (enpresa sozialak) kide kopurua adierazi beharko duzue. Informazio hau lortzeko, erakundeko gobernu organoetako karguak aldatzea edo berritzea erabaki den bilera</p>



			<p>edo asanblada orokorren aktak kontsulta ditzakezue, eta baita erakundearen estatutuak ere.</p> <p>Antolaketa erabat horizontala bada, 0 erantzukizun-kargu jartzea gomendatzen dugu, hori islatzeko.</p>
q3204	Erantzukizun karguak	Erakunde barruan izaten da kontuan lidergoa, eta hartzen dira neurriak erabakiak hartzeko orduan lidergo horiek erabakigarriak izan ez daitezzen?	<p>Pertsona batzuek kudeaketa-plana, aurrekontua, ebaluazio-plana, txostena eta abar lantzen dituzte eta/edo horien inguruko erabakiak hartzen dituzte; hori kontuan hartuta, erakundeak eta berori osatzen duten pertsonen arduraz jokatzeko dute, eta, lidergo horren jakitun, mekanismoa ezartzen dute buruzagitzak ez daitezzen erabakigarriak izan azken erabakiak hartzeko orduan. Tresnak baldin badituzue, adierazi zein diren. Adibidez, Zaintzen Gida.</p> <p>Bai / Ez</p>
q3205	Erantzukizun karguak	Erantzuna baiezkoa bada, azal itzazu labur-labur.	<p>(Aurreko galderari baiezkoko erantzuna eman bazaio bakarrik erantzun)</p>
q3301	Soldata-berdintasuna	Ordainsaririk altuena (prezio gordinen lanorduko) -€-tan-	<p>Adierazi erakundearen ordainsaririk altuena zein den; horretarako, kontuan hartu behar da lan egindako orduaren prezio gordinaren; izan ere, hileko edo urteko soldata gordin moduan adieraziz gero ordainsari diferentziak lan ordutegietan dauden diferentzien baitan egon litezke. Soldatarik altuena neurtzeko orduan, soldata gordinaz gain, kontuan hartu behar dira, halaber, erakundearen barruan kargu jakin bat betetzeagatik bileratara eta beste jarduera batzuetara joateko ordainsariak. Erakundearen ordezkatzegatik beste erakunde batzuek ordaindutako ordainsariak izango lirateke. Ordainsari hauek lan egindako orduko prezio gordinaren kalkulura gehitzeko, gomendatzen dugu erakundearen ordezkatzegatik jasotakoa batzea urteko soldata gordinari eta batuketara hau zatitzea lan kontratuan edo hitzarmenean (aplikagarria</p>



			<p>den kasuaren arabera) adierazitako urteko orduen artean. Gomendatzen dugu bai nominak bai soldaten eta ordainsarien 64. kontua kontsultatzea, Kontabilitate Plan Orokorraren arabera.</p> <p>Genero bateko langile bakar bat badago, beharrezkoa da bi galderetan ordainsari bera jartzea genero horretarako.</p>
q3302	Soldata-berdintasuna	Ordainsaririk baxuena (prezio gordinetan lanorduko) -€-tan-	<p>Adierazi erakundearen ordainsaririk baxuena zein den; horretarako, kontuan hartu behar da lan egindako orduaren prezio gordinak; izan ere, hileko edo urteko soldata gordin moduan adieraziz gero ordainsari diferentziak lan ordutegietan dauden diferentzien ondorio izan litezke. Kalkulua egiteko, gomendatzen dugu urteko soldata gordin zatitzea lan kontratuan edo hitzarmenean (aplikagarria den kasuaren arabera) adierazitako urteko orduen artean. Adierazle hauetatik kanpo daude bekadunek edo praktikaldian dauden pertsonen jasotako ordainsariak. Gomendatzen dugu bai nominak bai soldaten eta ordainsarien 64. kontua kontsultatzea, Kontabilitate Plan Orokorraren.</p> <p>Genero bateko langile bakar bat badago, beharrezkoa da bi galderetan ordainsari bera jartzea genero horretarako.</p>
q3401	Berdintasuna	Hizkuntzaren erabilera ez sexista bat egiten al duzue zuen kanpoko dokumentu eta jakinarazpen guztietan?	<p>Hautaketa anizkoitza:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Normalean ez▪ Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da dokumentuetan▪ Ahozko hizkuntzan hizkuntza inklusiboa erabiltzen da▪ Aniztasuna ikusarazten duten irudiak erabiltzen dira (sexuala, arrazakoa, adinekoa,) <p>Hizkuntzaren erabilera ez sexista da gizonak eta emakumeak berdintasun terminotan kontuan hartuko dituen hizkuntzaren berdintasunezko</p>



			<p>erabilerarako estrategiak kontzienteki hartzea. Sexu bakar bati esplizituki edo inplizituki erreferentzia egiten dioten terminoen erabilera, ahal den neurrian, saihestera dago bideratuta -emakumearen aldeko neurri positiboak direnean salbu-.</p> <p>Adibideak</p> <p>Informazio gehiago nahi izanez gero, eskuliburu hauek kontsulta ditzakezu: "Cuida tu Lenguaje, él dice todo", "Manual de Estilo para una Comunicación incluyente", "Guía de lenguaje no sexista de la UNED".</p>
q3402	Berdintasuna	Erakundeak ba al du indarrean dagoen berdintasun-planik eta dagokion jarraipena eta ebaluazioa egiteko baliabiderik?	<p>Adierazi berdintasun-plan bat formalizatuta eta indarrean dagoen ala ez. Gainera, erakundeak bere jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren baliabideak txertatu behar ditu. Enpresen eta erakundeen berdintasun-planak neurri multzo ordenatu bat dira, egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartuak, tratu- eta aukera-berdintasuna lortzeko eta generoagatiko diskriminazioa ezabatzeko. Berdintasun-planek lortu beharreko helburuak, hartu beharreko estrategiak eta horiek lortzeko ekintza zehatzak finkatzen dituzte, bai eta proposatutako helburuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak ere.</p> <p>Bai / Ez</p>
q2107	Berdintasuna	Kontratutako edo borondatezko pertsona bat dugu, edo/eta genero batzordea, astean dedikazioarekin, erakundearen barruan ikuspegi feminista	<p>Erakundearen ikuspegi feministaren behatzaile lana berariaz egin zaion pertsona edo talderik dagoen adierazten du.</p> <p>Bai / Ez</p>



		txertatzeaz, mantentzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen dena	
q3403	Berdintasuna	Erakundeak ba al du sexu-jazarpena, sexuagatiko, genero-identitateagatiko edo sexu-lehentasunagatiko jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko protokolorik?	<p>Sexu-jazarpena, sexua, genero-identitatea edo sexu-lehentasuna dela eta, prebenitzeko eta horri aurre egiteko protokolorik dagoen ala ez adieraztea. Protokoloak prebentzio-neurriak ezarri behar ditu jazarpen-egoera oro saihesteko, bai eta sensibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak eta jazarpena eragin edo eragin duten jardunbideak identifikatzen lagunduko duten elementuak ere, berehala eta eraginkortasunez ekin ahal izateko. Aldi berean, prozedura estandarizatu bat ezarri behar du jazarpenagatiko salaketei bide emateko, ikastetxean jazarpena jasan duten pertsonen erreparazioa eta jokabide horiek desagerrarazteko erantzukizun kolektiboa erdigunean kokatuko dituen ebazpen bat bermatzeko</p> <p>Bai / Ez</p>
q3404	Informazio garrantzitsua	Ekitatea eta demokrazia (hautazkoa)	<p>Badakigu ESS osatzen duzuen erakundeen errealitateak eta praktikak askotarikoak direla. Kontuan izanik galdetegi hau garrantzitsua dela erakunde gisa pentsatzeko eta kanpora begira kontatzeko, ikusten duzue komenigarria edo beharrezkoa dela zuen errealitateari buruzko informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan jaso/islatu ez den "Ekitatea eta demokrazia" atal honi dagokionez?</p>



JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA

q4104	Ingurumen-politika eta - irizpide orokorrak	Adieraz ezazue erakundearen ingurumen- irizpide orokorrak	Hautatu erakundearen funtzionamenduan eta erabaki estrategikoak hartzean txertatzen dituzuen ingurumen-alderdi garrantzitsuenak (hautaketa anizkoitza): <ul style="list-style-type: none">▪ Ingurumen-kudeaketa politika bat, ekintza-plan bat edo sistema bat daukagu▪ Ingurumen-sentsibilizaziorako tresnak ematen ditugu barne- mailan (langileei, boluntarioei, etab.)▪ Eragin politikoa eginez eta/edo erakundetik kanpo ingurumen- inpaktuaren murrizketari buruzko dibulgazioa eginez lan egiten dugu▪ Jarduera ekonomikoan azterna ekologikoa murrizteko edota kompentsatzeko neurriak hartzen ditugu▪ Aurrekoetatik bat ere ez
q4102	Ingurumen-politika eta - irizpide orokorrak	Eramaten al duzue CO2 isurien barne kontrolik?	Erakundeak bere ohiko jarduerak eragindako eta gastu energetikoko iturri desberdinetatik (elektrizitatea, gas naturala, propanoa, gasolioa eta/edo egindako kilometrajea) etor daitezkeen berotegi-efektuko gasen erregistro bat eramaten duen jakiteko da, baita bere murrizketarako dokumentaturik dauden edozein motatako neurriak ezartzen dituen, hala nola, hondakinen prebentziorako plan edo protokoloak, energia edota ur kontsumoa eraginkortasuna, garraio jasangarriko sistemen sustapena, ingurugiro-kudeaketa sistemak, ekoizpen garbia...). Bai / Ez
q4103	Ingurumen-politika eta - irizpide orokorrak	CO2 isuriak kg-tan	Adierazi aurreko urteko CO2 isuriak. REAS Navarrak egindako kalkulagailua erabiltzea gomendatzen dugu. Kalkulagailu gehiago aurki



			<p>ditzakezue trantsizio ekologikorako eta erronka demografikorako Ministerioaren webgunean..</p> <p>Aurreko galderari baiezko erantzuna eman bazaio bakarrik erantzun</p>
q4209	Kontsumoa	<p>Ba al dago barne-politikarik energia-erabilera murrizteko eta erakundeko kideak horren partaide egiteko?</p>	<p>Barne-politikak energia aurrezteko jarduerak barne hartu beharko lituzke, hala nola tenperatura erregulatzea, LED bonbillak erabiltzea, gauez ekipo elektronikoak itzaltzea, etab. Nahiz eta erakundeak lokalik ez izan, langile guztien artean barne-kontzientziazioa egitea baloratzen dugu, telelanean aplikatu ahal izateko. Bai / Ez</p>
q4210	Kontsumoa	<p>Behar ez den kontsumoa saihesteko erakundearen ekintzak berrikusi dituzue eta neurri zehatzak ezarri dira?</p>	<p>Kontsumo arduratsua egiteko lehen premisa beharrezkoa ez den kontsumo oro saihestea da. Ildo horretan, adierazi erakunde gisa neurri zehatzak hartu dituzuen kontsumoa jarduera garatzeko premietara doitzeko.</p> <p>Bai / Ez</p>
q4211	Kontsumoa	<p>Produktu eta zerbitzuen horniduran, kontuan hartzen al duzue karbono-aztarna kontsumitzen dituzuen produktu eta/edo zerbitzuetan? Hau da, lehentasuna ematen diozue tokikoak, hurbilekoak edo ingurumen-inpaktua minimizatzeakoak izateari?</p>	<p>Adierazi baietz produktuak eta zerbitzuak erosterakoan hurbilekoak izatea edo/eta ingurumen-inpaktua minimizatzea lehenesten baduzue.</p> <p>Bai / Ez</p>



q4212	Kontsumoa	Produktuen horniduran, ekologikoak izatea lehenesten duzue?	<p>Produktu ekologikoez ari garenean, elikagaiez gain, beste batzuez ere ari gara, hala nola papergintzaz, kosmetikaz, higieñez edo garbiketaz.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Bai▪ Ez▪ Ez dugu produkturik kontsumitzen, ez ekologikorik ezta ez-ekologikorik.
q4206	Kontsumoa lantokian ²	Ba al duzue ur kontsumoa aurrezteko eta eraginkorra izateko praktikarik eta prozedurarik?	<p>Adierazi bai edo ez, erakundeak ura aurrezteko eta uraren erabilera eraginkorra izateko ekintzak aurrera eramaten dituen arabera. Idealki, neurri horiek ingurumen arloko ekintza planean egon beharko lirateke jasota, baina ekintzak ekintza plan bat izateko beharrik gabe gara daitezke. Bai / Ez</p>
q4208	Kontsumoa lantokian	%100ean berriztagarriak diren iturrietatik energia sortzen duten hornitzaileekin kontratatzen al duzue zerbitzu elektrikoa?	<p>Jatorri-bermeak elektrizitate kopuru bat iturri berriztagarriek edo efizientzia altuko kogenerazio iturriek Estatuko edozein puntutan ekoizitakoa izan dela egiaztatzen duen trena bat dira. Elektrizitatearen Gd0 eta Etikatuaren sistema Energiaren Batzorde Nazionalak (CNMC) inplementatu zuen 2007ko abenduan, jasotako energiaren jatorriari eta eragindako ingurumen inpaktuari buruz kontsumitzaileari zehatz mehatz informatzeko. Urtero enpresa hornitzaileak aztertzen dira. Esteka honetan kontsulta daiteke.</p> <p>Zerbitzuaren zati bat kontratatzea bi lantoki edo gehiago dituzten erakundeei bakarrik aplikatu daieke.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Bai

² Lantokiko kontsumoari buruzko galderen multzo honetan lan kolektiboko espazioetan (coworking) lan egiten duten erakundeak ere sartzen ditugu. Kasu honetan, baloratzen dugu erakundeak laguntzea espazio kolektiboan kontuan har dadin galdera bakoitzean aipatzen dugun kontsumoaren ingurumen-inpaktua.



			<ul style="list-style-type: none">▪ Zati bat kontratatzen dugu, ez dena▪ Ez
q4213	Kontsumoa lantokian	Inbertsio garrantzitsuren bat egin al duzue energia-beharrak optimizatzeko eta murrizteko (argiztapena, hozte-sistema, berokuntza, itxierak, etab.)	Adierazi baietz, azken 4 urtetan erakundeak inbertsio handia egin badu energia-beharrak murrizteko. Nahiz eta lan kolektiboko espazio batean egon, erakundeak inbertsio hori egiten laguntzea baloratzen dugu. Bai / Ez
q4301	Kontsumoa lantokian	Baso-ustiapen jasangarria ziurtatzen duen eta/edo birziklatuta dagoen papera erabiltzen al duzue normalean eta gehienbat?	Adierazi bai edo ez, erakundeak bere bulegoetan normalean birziklatua dagoen edo baso ustiapen jasangarriko ziurtagiria duen papera erabiltzen duen arabera. Datu hau lortzeko, erakundea paperez hornitzen duen enpresaren fakturak kontsulta daitezke eta baita bostehun orriko paketeen bilgarrietakoak ere. paper zuriaren kasuan (ez birziklatua), onartzen den baso ziurtagiri bakarra FSC (Forest Stewardship Council) da, ez da onartzen PEFC (Baso Jasangarritasunaren aldeko Espainiako Elkarte) ziurtagiria. <ul style="list-style-type: none">▪ Bai▪ Ez▪ Ez dugu paperik erabiltzen
q4407	Hondakinen prebentzioa, tratamendua eta bilketa	Adierazi hondakinak kudeatzeko zer jardunbide aplikatzen dituzuen (hautaketa anitza):	Hautatu erakundearen jarduerak sortzen dituen hondakinak kudeatzeko egiten dituzuen praktikak. Hautaketa anizkoitza: <ul style="list-style-type: none">▪ Hondakinak bereizteko praktikak ezartzen ditugu birziklatu ahal izateko



			<ul style="list-style-type: none">▪ Inpaktu txikiko materialak eta bilgarriak erabiltzea lehenesten dugu, eta beharrezkoak ez diren hondakinak sortzea saihesten dugu▪ Aparatuak eta ekipamenduak berrerabiltzen eta/edo konpontzen ditugu▪ Ekonomia zirkularraren alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan aritzen gara, dagoeneko erabiltzen ez den materiala edo produktuak berraprobetxatzeko.▪ Aurrekoetatik bat ere ez
q4601	Mugikortasuna	Lantokirako garraioarekin lotutako alternatibarik edo laguntzarik eskaintzen duzue?	Barnean daude dokumentatuta dauden mota guztietako neurriak, hala nola auto partekatua, garraio kolektiboa, langileentzako bizikletak, bizikletentzako aparkalekuak, garraio-txartelen finantzazio osoa edo partziala, lanera oinez joaten diren langileei zuzendutako ordainketa diruz edo gauzaz, autoa partekatzeko laguntza ekonomikoa, sentsibilizazio-kanpainak... Bai / Ez
q4602	Mugikortasuna	Lanaldian zehar, langileen garraioa errazten duzue, erakundearen beharrengatik lekuz aldatu behar izanez gero?	Galdera hori lanaldiko joan-etorriei buruzkoa da. Ez du barne hartzen ohiko lanpostura iristeko egiten den desplazamendua. Bai / Ez
q4603	Mugikortasuna	Azaldu labur-labur nola errazten duzuen langileen garraioa lanaldian zehar mugitu behar dutenean	Aurreko galderari baiezko erantzuna eman bazaio bakarrik erantzun



q4701	Informazio garrantzitsua	Jasangarritasun ekologikoa (hautazkoa)	Badakigu ESS osatzen duzuen erakundeen errealitateak eta praktikak askotarikoak direla. Kontuan izanik galdetegi hau garrantzitsua dela erakunde gisa pentsatzeko eta kanpora begira kontatzeko, ikusten duzue komenigarria edo beharrezkoa dela zuen errealitateari buruzko informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan jaso/islatu ez den "Jasangarritasun ekologikoa" atal honi dagokionez?
-------	--------------------------	---	---

LANKIDETZA ETA INGURUAREKIKO KONPROMISOA

q50B	Sare eta gizarte mugimenduetan partaidetza	Erakundeak aktiboki parte hartzen duen entitate, sare, federazio edo eraldaketa sozialeko ekimen egonkorak izendatu	Urtean zehar modu aktibo batean parte hartu izan den erakundeak, sareak, federazio edo eraldaketa sozialerako ekimenak izendatu. Partaidetza aktiboa diogunean, urtero 30 orduetik gora dedikatzeaz edota kuota bat ordaintzeaz ari gara. Partaidetza hori, aktetan edota erakundearen urteko plangintzan agertu behar da.
q5101	Sare eta gizarte mugimenduetan partaidetza	Erakundeak zenbatean behin finantzatzen du lan-ordutegiaren barruan gizartea eraldatzeko beste ekimen batzuei eskainitako denbora?	Erakundeko pertsona baten edo batzuen bitartez egin daiteke. Aukerak: <ul style="list-style-type: none">▪ Hilabetean behin gutxienez▪ Hiru hilabetean behin gutxienez▪ Urtean behin gutxienez▪ Inoiz ez
q5302	Merkatu Soziala	Merkatu Sozialeko eta/edo REASEko erakundeei egindako ondasun eta	REAS edo Merkatu Sozialeko erakundeei buruzko informazioa REAS Red de Redes-en webguneetan (www.mercadosocial.net eta https://reas.red) eta zure lurralde-sarearen webgune korporatiboan aurki dezakezu. Baliozkotzea: $(0 \leq X) \&\& (X \leq q1202) \&\& ((X + q5306) \leq q1202)$



		zerbitzuen erosketen zenbatekoa	
q5306	Merkatu Soziala	Gizarte-ekonomiako erakundeei egindako ondasun eta zerbitzuen erosketen zenbatekoa (Merkatu Sozialekoak eta REASekoak ez direnak)	Gizarte Ekonomiari buruzko Legeak adierazten dituen printzipio eta forma juridikoen arabera jarduten duten erakundeei mota guztietako ondasunak eta zerbitzuak erosteari egiten dio erreferentzia. Baliozkotzea: $(0 \leq X) \ \&\& \ (X \leq q1202) \ \&\& \ ((q5302 + X) \leq q1202)$
q5305	Merkatu Soziala	Erakundeak lan egiten du produktu eta zerbitzu berak ematen dituzten beste erakunde batzuekin	Lankidetzan aritzen den erakundeak ez dira zertan ekonomia sozialekoak eta solidariokoak izan behar eta/edo lurralde berean egon behar. Adierazle honekin ezagutu nahi da sektore bereko erakundeen artean dagoen lankidetzaren maila, haien arteko konpetentzia murriztuz. Lankidetzaren hauek dokumentatuta egon behar dira laneko bileratara aktatzen, baterako proiektuetan, alokairu edo erosketen kontratuetan, etab. Hautaketa anizkoitza: <ul style="list-style-type: none">▪ Lokala partekatzen▪ Ezaupideak partekatzen▪ Kudeaketa partekatzen▪ Proiektuak partekatzen▪ Ez da elkarlanean aritzen
q5309	Merkatu Soziala	Bezere, hornitzaile, oinarri sozialaren etab-en artean MES/REAS ezagutaraztea babesten duzue?	Hautaketa anizkoitza: <ul style="list-style-type: none">▪ Kartela edota logoak darabiltzagu webgunerako▪ Babesa ematen dugu sare sozialetan, posta elektronikokoan sinatzen edota zabalkunde-liburuxkak eskuragarri jartzen



			<ul style="list-style-type: none">▪ Era aktiboan parte hartzen dugu MES ezagutarazten (ekonomia sozialeko espazioetan, informazio-txokoetan, hitzaldietan, materialak sortzean eta abarretan)▪ Ez dugu inolako laguntzarik ematen
q5501	Prokomunerako kontribuzioa	Zure jardueraren ondorioz, sortzen al duzu komunari zuzendutako erabilera libreko ondasun, zerbitzu edo material motaren bat eta / edo sortzen al duzu Creative Commons bezelako lizentzia libreen menpe dagoen ondasun kreatiborik edo ezagutzarik?	Sortutako ondasunen, zerbitzuen edo materialen erabilera libreari buruz galdetzean, ez du esan nahi horiek nahitaez lizentzia libreen menpe erregistratuta egon behar direnik, baizik eta hirugarren pertsonen eskura jartzen direla edo hirugarren pertsonak libreaki erabil ditzaketela esan nahi du. Gehiago jakiteko . Bai / Ez
q5502	Prokomunerako kontribuzioa	Adieraz ezazu zein den software librearekin duzun konpromisoa	Hurrengo esteka honetan, software askeko tresna erabilgarrienak aurki ditzakezue Aukerak: <ul style="list-style-type: none">▪ Ez da software librerik erabiltzen edo soilik unean-unean eta/edo gutxiengoan▪ Software libreko programa ofimatikoak erabiltzen dira normalean eta gehienbat▪ Programa ofimatikoez gain, software libreko programa profesionalak erabiltzen dira (diseinu grafikoa, kudeaketa kontablea...) normalean eta gehienbat



			<ul style="list-style-type: none">Erakundeko ordenagailuen sistema operatibo gehienak software librekoak dira
q5402	Hizkuntza politika	Kanpo-dokumentu eta mezu guztietan euskara zein gaztelera erabiltzen dugu	Bai / Ez
q5202	Finantza etikoak	Finantza etikoko erakundeen bazkideak al zarete edo horiekin eragiketarik egiten al duzue?	Adierazi bai edo ez erakundea hauetako finantza etikoko erakunde baten kide den edo horietako batekin eragiketak egiten dituen arabera. Finantzazio etikoko erakundeak dira hauetako edozein: COOP57, FIARE, OIKOCREDIT eta TRIODOS BANK. Finantzazio etikoko erakunde batekin eragiketak eginez gero, orriaren hasieran aurkituko duzuen testu-eremuan adieraz ezazue (q50b). Bai / Ez
q5205	Finantza etikoak	Zer banku motarekin aritu ohi da erakundea?	Aukera posibleak (bakar bat hautatu): <ul style="list-style-type: none">Fiare eta hurrengo hauetako baten bat: Triodos Bank, Oikocredit, Kutxa kooperatiboak (Laboral Kutxa, Ingeniariak, Bantierra, Arquia)Triodos Bank, Oikocredit, Kutxa kooperatiboak (Laboral Kutxa, Ingeniariak, Bantierra, Arquia)Aurreko erantzunetako baten bat eta beste banku-erakunde batzukBeste banku-erakunde batzukEz du banku-kontuekin lan egiten
q5704	Informazio garrantzitsua	Lankidetzeta eta inguruarekiko konpromisoa (hautazkoa)	Badakigu ESS osatzen duzuen erakundeen errealitateak eta praktikak askotarikoak direla. Kontuan izanik galdetegi hau garrantzitsua dela erakunde gisa pentsatzeko eta kanpora begira kontatzeko, ikusten duzue komenigarria edo beharrezkoa dela zuen errealitateari buruzko



informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan jaso/islatu ez den "Lankidetzaren eta inguruarekiko konpromisoa" atal honi dagokionez?

LAN DUINA

q6202 Lan osasuna

Aktiboki sustatzen al da langileen osasuna eta ongizatea laneko arriskuen prebentzioko betebeharretatik harago?

Erakundeak laneko arriskuen prebentzioaz haratago egiten dituen ekintzak. Honela ulertzen dugu: (hautaketa anizkoitza)

- Osasun mentala eta emozionala (laguntza psikologikorako edo laguntza emozionalerako espazioak, estresa, antsietatea edo burnouta kudeatzeko prestakuntza, deskonexio digitalerako politikak...)
 - Ergonomia eta baldintza fisikoak (ebaluazio ergonomiko pertsonalizatuak, lanpostuen egokitzapena, lanaldiko etenaldi aktiboak edo luzapenak, mahai goragarriak bezalako alternatibak...)
 - Ohitura osasungarriak (elikadura osasungarria sustatzea, jarduera fisikorako pizgarriak - gimnasioa, kirol taldeak, erronka kolektiboak -, osasunari buruzko barne kanpainak -loa, hidratazioa-...)
 - Lan ingurune osasungarria (espazio atseginak – argi naturala, landareak, atsedeen-guneak –, zarata murriztea edo estimulu estresagarriak, toxikorik gabeko bulegoak – garbiketa-produktuak, materialak –...)
-



			<ul style="list-style-type: none">▪ Prestakuntza eta sentsibilizazioa (Laneko osasun integralari buruzko tailerrak, Autozaintzari buruzko prestakuntza, Hilekoaren osasunari buruzko sentsibilizazioa, osasun mentala, ingurumen-osasuna...)▪ Ez da aktiboki sustatzen
q6406	Lan-egonkortasuna	Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonen kopurua, generoaren arabera bereizita	Joan den urtean, %100 baino gutxiagoko lan saioa egiten zuten pertsona kopurua adierazi.
q6407	Lan-egonkortasuna	Nahi diren lanaldi partzialen kopurua, generoaren arabera bereizita	Adierazi langileek libreki aukeratutako lanaldi partzialen kopurua.
q6601	Lan prestazioen arauketa	Erakundeak bat al du aplikazio-hitzarmenean dauden lan baldintzak hobetzeko neurriak aurreikusten dituen barne araudi edo protokolorik?	Adierazi bai edo ez erakundeak bere lan harremanei dagokienez jarraitu beharreko prozedurak eta protokoloak idatziz jasotzen dituen barne araudi bat duen arabera. Harreman horiek hitzarmen bidez araututa egon daitezke edo erakundearen harreman espezifikoak izan daitezke, baina baiezkota erantzuteko, aipatutako hitzarmenarekiko hobekuntzak egon behar dira araututako eskubideetako batean (laneko bajak, baimenak, eszedentziak, oporrak, aparteko orduak, etb). Bai / Ez
q6602	Lan prestazioen arauketa	Aparteko lanorduak zenbatzen al dira?	<ul style="list-style-type: none">▪ Bai▪ Ez▪ Ez da lanalditik harago lan egiten
q6603	Lan prestazioen arauketa	Lan egindako ordu estrak konpentsatzeko moduren	<ul style="list-style-type: none">▪ Nagusiki diruz ordaintzen dira



		bat existitzen da? Aurreko galderari baiezko erantzuna eman bazaio bakarrik erantzun	<ul style="list-style-type: none">▪ Nagusiki denboraz konpentsatzen dira (opor egunak, lansaioaren ordu kopuruen murrizketa, etab.)▪ Nagusiki etorkizuneko lan karga murriztuz konpentsatzen dira▪ Beste mekanismo batzuen bitartez konpentsatzen dira▪ Ez dira ordu estrak konpentsatzen
q6701	Prestakuntza	Zein neurri aplikatzen da langileen prestakuntza sustatzeko?	<p>Erreferentzia egiten die erakundearen sailetan eta/edo konpetentzian langileen gaitasun profesionala hobetzeko erakundeak dituen politika espezifikoiei. Hau da, kanpo geratzen dira langileen eremu pertsonalei dagozkien prestakuntzak.</p> <p>Aukerak:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Ez da langileen prestakuntzarik aurreikusten▪ Ordu-tegiak egokitzen dira prestakuntza errazteko▪ Prestakuntza-orduak sartzen dira lan-ordutegian edo prestakuntzaren kostua estaltzen laguntzen da▪ Prestakuntza-orduak sartzen dira lan-ordutegian eta prestakuntzaren kostua estaltzen laguntzen da
q6704	Prestakuntza	Berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikorik egiten al da?	<ul style="list-style-type: none">▪ Bai, eta nahitaezkoak dira langile guztientzat.▪ Bai, eta borondatezkoak dira langileentzat▪ Ez
q6801	Zaintzak eta konpentsazioak	Idatziz jasotzen eta formalizatzen al dira legeak familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko	<p>Adierazi bai ala ez, erakundeak barne-araubideko erregelamendurik duen edo ez. Erregelamendu horretan idatziz jasoko dira familia eta lana uztartzeari dagokionez jarraitu beharreko prozedurak eta protokoloak. Baietz erantzuteko, hobekuntzak egin behar dira familia eta lana bateragarri egiteko Legearekin alderatuta (adibidez, amatasun- eta</p>



		ezarritako baimenak hobetzeko neurriak?	aitatasun- eta/edo edoskitze-baimen ordainduak luzatzea, seme-alabez gain zaintzaren hartzaile diren beste pertsona batzuk ere kontuan hartzea, etab.). Eskubide horiek jasotzen dituzten araudiak hauek dira: azaroaren 5eko 39/1999 Legea (1999ko azaroaren 6ko BOE, 266. zk.), otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako lan-erreforma, Langileen Estatutuan aldaketak dakartzana, bai eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legea ere. Bai / Ez
q6810	Zaintzak eta konpentsazioak	Erakundeak ba al du neurririk GIZONAK, zehazki, kontziliazioaz balia daitezen sustatzeko?	Baietz erantzuteko, hobekuntzak egin behar dira familia eta lana bateragarri egiteko Legearekin alderatuta (adibidez, aitatasun-baimen ordainduak luzatzea, seme-alabez gain zaintzaren hartzaile diren beste pertsona batzuk ere kontuan hartzea, etab.). Eskubide horiek jasotzen dituzten araudiak hauek dira: azaroaren 5eko 39/1999 Legea (1999ko azaroaren 6ko BOE, 266. zk.), otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako lan-erreforma, Langileen Estatutuan aldaketak dakartzana, bai eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legea ere. Bai / Ez
q6811	Zaintzak eta konpentsazioak	Ze neurri?	Neurriak laburki azaldu. Aurreko galderari baiezko erantzuna eman bazaio bakarrik erantzun
q6802	Zaintzak eta konpentsazioak	Sortzen al dituzue langileak emozionalki artatzeko eta zaintzeko eremuak horiek lan-ingurunearekin duten egoera dela eta?	Adierazi bai edo ez, erakundeko langileek beren bizipenak eta egoera pertsonala lan-ingurunean partekatzeko espazio bat duten kontuan hartuta. Espazio horiek forma formalagoak eta erregularragoak har ditzakete: emozioak adierazteko txandak bileren hasieran edo bukaeran, erakundearen zaintza emozionalaz arduratzen den batzorde bat edo pertsona batzuk, etab. Emozioak zaintzeko eta adierazteko mekanismo



hauek baldin badaude, bileren, organigramaren edo barne araudian adierazi beharko dira.

Bai / Ez

q6812

Informazio garrantzitsua

Lan duina (hautazkoa)

Badakigu ESS osatzen duzuen erakundeen errealitateak eta praktikak askotarikoak direla. Kontuan izanik galdetegi hau garrantzitsua dela erakunde gisa pentsatzeko eta kanpora begira kontatzeko, ikusten duzue komenigarria edo beharrezkoa dela zuen errealitateari buruzko informazio garrantzitsuren bat partekatzea, aurreko galderetan jaso/islatu ez den "Lan duina" atal honi dagokionez?
